

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

**EDUCACION**

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Gobernuak euskarazko ziurtagiri ofizialak sortu ditu Europako hizkuntzen esparruari egokituta

*Gainera, ziurtagiri horiek ematea arautzen du Nafarroako Administrazio Publikoetako prozedurak bateratzeko*

Miércoles, 29 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu bat onartu du: haren bidez, Europako hizkuntzen esparruari egokitutako ziurtagiri ofizialak sortzen ditu euskararen ezagutza egiaztatzeko A1 (hastapena), A2 (oinarrizkoa), B1 (erdi maila) eta B2 (aurreratua) mailetan. Arau horrek, gainera, ziurtagiri horiek ematea arautzen du Nafarroako Administrazio Publikoetan erabilitako prozedurak bateratzeko. EGA titulua bera, C1 mailakoa (altua), erkidegoaren estandarretan homologatuta dago jadanik.

Helburu nagusia ezagutza-maila argitzea da enpleguaren eskaintza publikoko etorkizuneko deialdiei begira; izan ere, gaur arte Gobernuak unitateek hainbat baremorekin egiten dute lan.

Onarpen horren aurretik, Euskararen Nafar Kontseiluak-Euskarabideak aldeko txostena egin zuen otsailaren 24ko bilkuran.

Mailen ziurtagiri ofizialak eskuratzeko probak zuzen egin daitezzen, Azterketen Batzorde Ofizial bat eratuko da; haren eginkizunak honako hauek izango dira, besteak beste: probak prestatu eta ikuskatzea; probak ebaluatzeko eta zuzentzeko irizpideak finkatzea; euskararen eta beste hizkuntza batzuetan erabilitako maila egiaztatzeko azterketa-ereduak aztertzea; aztertzaileen prestakuntza eta eguneratzeko jarduerak proposatzea; probetako eta azterketetako akten emaitzak aztertzea; aurkeztu daitezkeen erreklamazio nahiz errekurtsioen gaineko informazioa ematea.